

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



RICARDO MARTIN. PHOTO CARTE FUNTSA. KUTXATEKA.

EMAKUMEAK UNION ARTESANAKO DANBORRADAN, 1929AN

1929ko urtarrilaren 20a, igandea, eguraldi onarekin esnatu zen. Egun horretan bertan, Atotxako zelaian jokatu zen Realaren eta Osasunaren arteko euskal derbia. Egun horretako prentsak Donostiako elkarteek San Sebastian bezpera afari, danborrada eta dantzaldiekin nola ospatu zuten jaso zuen. Asteartean, hilak 22, egunkari guztiek San Sebastian egunari buruz hitz egiten zuten, eta idazten zuten gazte asko izan zirela, lehen orduetan, hainbat elkartetatik ateratzen zirenak goizeko danborradetan parte hartuz, ordubete baino gehiago deskantsatu gabe. Segura, Hernani eta Donostiako txistulari eta dultzaineroek auzoak zeharkatu zituzten lehen ordu horietan. Egun horretan atera zen lehen danborradetako bat Union Artesanakoa izan zen, prentsaren arabera "gazte sutsuek" osatua. Ricardo Martinek egindako artikulua ilustratzen duen argazkian, Union Artesanako emakume batzuk ikusten dira. "El Pueblo Vasco" egunkariak honela deskribatu zituen: "Gentiles milicianas de la tamborrada de la Unión Artesana".